

UNESCO ETXEKO OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKU BATZORDEKO
BIURTEKO III. TOPAKETA
2009ko IRAILAREN 21a
BAKEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPENA
“ALDAKETA GARAIA, AUKERA GARAIA.
GIZARTE ZIBILAREN PARTE-HARTZEA ALDEANIZTASUN GIRO BERRIAN”

SARRERA

Euskadik eta mundu osoak berezia duten garai honetan, UNESCO Etxearen ohorezko bazkideen Aholku Batzordea bilduko da hirugarrenekoz, bi urtean behin egin ohi duen bezala. Une latza bizitzen ari gara, baina, latza izateaz gainera, aldaketarako unea ere izan daiteke, eta, ondorioz, aukera berriak ekar ditzakeena.

1. Nazioartean krisialdi ekonomiko eta sozial oso larria dago. Egungo finantza-krisialdiak eragin handia du ekonomia errearen gain, eta, hein handi batean, ekoizpen-sektoreen gain. Aurreikusi zitekeen krisialdia da hau, merkatu-baloreek UNESCOk bultzatzen dituen balio etiko eta demokratikoak (justizia, askatasuna, solidaritatea eta berdintasuna) ordezkatu baitituzte. Krisialdia Estatu Batuetan sortu zen; Joseph Stiglitz Nobel Sariaren hitzetan, “finantza-sisteman oker bat gertatu zen, eta horrek ekonomia erreala berehala moteltzea ekarri zuen. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, aitzitik, alderantziz gertatu da: esportazioek behera egin dute, diru-bidalketak murriztu dira, eta kapital-fluxuek gainbehera egin dute. Horrek ekarri du garapen-bidean dauden herrialdeen ekonomia ahultzea”¹.

2. Oraindik ez dakigu krisialdiaren guztizko dimentsioa zein izan den, baina haren ondorioak oso larriak dira dagoeneko. Krisialdiak oso bestelako ondorioak ekarri ditu iparraldean eta hegoaldean. Iparraldean, langabezia-tasak gora egin du, higiezinak krisian daude, zaila da kredituei aurre egitea, eta gora egin dute ordaintzeko berankortasunak, gizartearen babesik ezak eta ziurgabetasunak.

¹ STIGLITZ, J. E. *La ONU coge las riendas*. El País, 2009/07/19.

http://www.elpais.com/articulo/semana/ONU/coge/riendas/elpepueconeg/20090719elpneglse_7/Tes

Hegoaldean, ondorioak are larriagoak dira. Horren erakusgarri, datu bat: munduan goseak dauden pertsonen kopuruak %20 egin du gora bi urtetan; 850 milioi pertsonatik 1.020 milioi pertsonara igaro da. Zenbateko beldurgarria eta onartezina. FAOren arabera², munduan sekula ez dira hainbeste lagun goseak izan. Nazioarteko komunitate garen aldetik, konpromisoa hartua genuen –Milurteko Garapen Helburuak– 2015. urterako goseak dauden pertsonen kopurua erdira murrizteko!

3. Krisialdiak agerian utzi du globalizazioak berehalako batean lotzen dituela gizarteak eta gizartearen alor guztiak. Krisialdiak, gainera, ageriko egiten ditu munduko desberdintasunak, eta baita gizarte-kontraesanik, kontraesan politikorik eta ingurumen-kontraesanik garrantzitsuenetako batzuk ere. Erakunde ekonomikoek, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Fondoak bereziki, urteetan zehar eurei egokitutako betebeharrak ez dituzte bete. Tamalez, Munduko Komertzio Erakundea Nazio Batuetatik kanpo dago oraindik.

Aldaketa handi baten aurrean gara, eragina izan dezakeena arau ekonomikoen, finantza-arauen, merkatuko arauen, garapen-arauen, gobernagarritasun globalaren arauen eta nazioarteko harremanen etorkizuneko diseinuaren gain. Tokian-tokian nahiz munduan, aldaketa handiak gauzatu beharko dira, tokiko erakunde eta gizarte zibiletik hasi eta Nazio Batuek arte.

4. Ahots askok – komunikabideen botere itzelak normalean kontutan hartzen ez dituenak- eskatu dute munduko gobernagarritasuna zuzentzeko, eta guk haiekin bat egingo dugu. Era berean, bat egingo dugu hezkuntza aldatzea eskatzen dutenekin. Inguruarekin lotura handiagoa duen hezkuntzaren alde egingo dugu, ingurukoekin lotura handiagoa duen hezkuntzaren alde, gai izango dena gizarte eskuzabalagoa eta solidarioagoa eraikitzeko, egungoaren moduko krisialdietara bultzatzen gaituen indibidualismoa gaituz.

UNESCO Etxeak eta ohorezko bazkideok bat egin nahi dugu Ban Ki-moon Nazio Batuen Idazkari Nagusiak proposaturiko “Aldeaniztasun berriaren aldeko aginduen”³ inguruko gogoetarekin. Horrez gain, , aldaketarako gure proposamenak helarazi nahi dizkiegu dagokien nazioarteko erakundeen arduradunei. Gaur egun, badirudi Barack Obamak, Estatu Batuetako presidentea, mundua gobernatzeko modu demokratikoagoen alde egin nahi duela, arma nuklearren eta ohiko armien bastertzeari buruzko neurri garrantzitsuak hartzeko asmoa duelarik. Guk tokiko erakundeen, gizarte zibilaren erakundeen eta herritarren egitekoan haratago jo nahi dugu. Krisialditik ateratzeko, herritarrek parte-hartze handiagoa izan behar dute mundua gobernatzeko orduan; gizarte zibilak ardura handiagoz parte hartu behar du tokian tokiko eta munduko gaietan.

² FAO (2009). *Munduko elikaduraren inguruko ziurtasunik ezaren egoerari buruzko txostena 2009*. (2009ko urrian argitaratua)

http://www.fao.org/fileadmin/user_upload/newsroom/docs/Press%20release%20june-es.pdf

<http://www.fao.org/news/story/es/item/20568/icode/>

³ NAZIO BATUAK. Idazkari Nagusia (2009). *Aldeaniztasun berriaren aldeko agindua*.

<http://www.unic.org.ar/prensa/archivos/SGPrincetonSP.mcp.pdf>

ALDAKETAK ETA AUKERAK EUSKADIN

5. Ohorezko bazkideok 2007ko irailaren 21ean bildu ginen azkenekoz. Ordutik hona, aldaketa ugari gertatu dira gure herrialdean.

2007. urtearen erdialdean, su-etenaren eta negoziazio-prozesuaren durunda zebilen artean ere. Egun, urruti samar ditugu oihartzun haren hotsak. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak⁴ eta terrorismoaren kontrako borrokan giza eskubideak babesteko Scheinin Nazio Batuen errelatore bereziaren txostenak⁵ zedarriztatu dituzte askatasunaren, parte-hartzearen, giza-eskubideen eta terrorismoaren arteko harremanaren mugak. Gaur egun, zera nahi dugu: ETA berehala desagertzea; gure herrialdean indarkeria alde batera uztea; pertsona ororen eskubideen alde lan egitea; eta gizartean nahiz alor politikoan indarkeria ezabatzea. 50 urtez existitu ondoren ETA egiaz desagertzen bada, herrian lan handia izango dugu egiteko normalizazio- eta adiskidetze-kontutan. Gizartearen gaitasunak indartu beharko genituzke kulturaren, hezkuntzaren eta bizikidetzaren alorrean. Horrez gain, pertsona ororen giza-eskubideak babestu eta sustatu beharko genituzke. Manuel Lezertuak esan bezala, giza eskubideak bermatzea eta terrorismoaren kontrako estrategia bateraezinak direla diotenei gogora ekarri behar diegu bi elementu horiek banaezinak direla. Berak esandakoari gehituko genioke gizarte zibilak babestu eta garatu beharko lukeela ideia hori.

6. Azken bileratik bi urte igaro dira. Denbora-tarte horretan, gobernua aldatu da. Autonomia Erkidegoaren ibilbide jada ez hain laburrean, sekula izan ez den gobernua dugu orain. Itxaropen eta zalantza asko sortu dira gobernu aldaketa honen inguruan. Gure ustez, gobernu-aldaketak jarraitu behar du herria eta herritarrak eraikitzen segitzeko aukeran, UNESCOren balio unibertsalen bidez eta erreferente, eragile nahiz arduradun berriak lagun harturik.

Gutxiengoa duen alderdi bat da agintean. Hari esker, legebiltzarrak indarra hartu behar du, eta herrialdearen bizitza politikoan erakunde gako bihurtu, eta legebiltzarra eztabaida-gune eta akordioetarako marko bilakatu.

⁴ COUR EUROPEENNE DES DROITS DE L'HOMME (2009). *Affaires Herri Batasuna et Batasuna C. Espagne* (Requêtes n^{os} 25803/04 et 25817/04). Strasbourg, 30 juin 2009.
<http://www.echr.coe.int>

⁵ NAZIO BATUAK (2008). *Terrorismoaren kontrako borrokan giza eskubideak babesteko Nazio Batuen errelatore bereziaren txostena, Martin Scheinin*.
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/informe_relator_luchterrorismo.pdf

7. Tamalez, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Euskadiko Hezkuntza Planak (2008-2011)⁶, joan den legegintzaldian onetsia, ez zuen jaso nahikoa babes politiko, sozial eta parlamentario ekimena herri-proiektu bihurtzeko. Nolanahi ere, uste dugu gehiago izan direla haren irabaziak, gabeziak baino. Uste dugu, baita ere, mugak baino balio handiagoak dituela. Hori dela eta, poztu gara ikusteaz gobernu berriak aurrekoaren lanari eutsi nahi izan diola, eta oinarrian hobekuntzak egin dituela. Aipamen berezia merezi du, baita ere, biktimak tratatzeko erak, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/1⁷ ebazpenean jaso dena. Ebazpen horrek, bestalde, 2005eko Munduko Goi Bileraren azken agiria dakar.

Era berean, esker onez jaso genuen terrorismoaren biktimei Euskadiko erakundeetan eskaintzen zaien arretari buruzko txostena, Arartekoak⁸ uztailaren 13an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuena, hain zuzen ere. Deitoratzen dugu hainbat kasutan egileari egindako kritikak ideien inguruko desadostasunetik haratago joan izana. Arartekoari eskatu nahi diogu, beraz, Euskadin bizikidetzaren neutraltasunez eta zuzentasunez zaintzeko egiten duen ahaleginari eusteko.

8. Gobernu berriak Euskal Herriko kaleetan biolentziaren zilegitasuna kentzeko ahalegin instituzional tinkoa egin du. Ahalegin horrek beharrezko erantzuna ematen dio indarkeriaren inguruko eredu edo ekintzaileenganako gorespen-, elkar hartze-, zilegitasun- edota elkartasun-espazioei. Ohartarazi nahi dugu, hala ere, borroka horretan neurriko bitartekoak erabili behar direla ondorio ezkorrak edo eskubide garrantzitsuak ziurtatzeko, esate baterako, biltzeko edo adierazpen askatasunaren eskubideak ziurtatzeko.

9. 2008an, nazioarteko aholkuei jarraituz, URA Uraren Euskal Agentzia sortu zen. UNESCO Etxeak lagundu zuen agentzia horren aginduen artean Milurtekoko Garapen Helburuak eta uraren giza eskubidea nazioarteko elkarlaneko agiriak sartzen⁹. Uraren Euskal Agentziarekin batera diseinatzen ari gara Ura izateko Giza Eskubide Unibertsala ziurtatzen laguntzen duen finantzatzeko euskal ekimena. Ekimen hori NBGPk¹⁰, MGHen kanpainak eta Nazio Batuen Uraren Hamarraldiak berritzailetzat jo dute.

⁶ EUSKO JAURLARITZA (2007). *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Euskadiko Hezkuntza Plana (2008-2011)*
http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19300/es/contenidos/plan_programa_proyecto/plan_noviembre_07/es_plan/plan_nov07.html

⁷ NAZIO BATUAK (2005). *2005eko Munduko Goi Bileraren azken agiria*.
<http://daccess-ods.un.org/access.nsf/Get?Open&DS=A/RES/60/1&Lang=S>

⁸ ARARTEKO (2009). *Terrorismoaren biktimei Euskadiko erakundeetan eskaintzen zaien arreta*.
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1684_3.pdf

⁹ EUSKO JAURLARITZA (2008). *Acuerdo relativo a actuaciones dirigidas al apoyo de proyectos orientados a la consecución de la Meta 10 del Objetivo 7 de los Objetivos de Desarrollo del Milenio, preferentemente para actuaciones que faciliten el disfrute del Derecho al Agua y al Saneamiento. 29/07/2008*.
http://www1.euskadi.net/acuerdos/indice_c.apl?Fecha=29/07/2008

¹⁰ URA (2009). *Euskadi firma con Naciones Unidas un acuerdo para destinar el 5% del canon del agua al África Subsahariana*.
http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/noticia/firma_pnud_5/es_doc/indice.html

10. 2008. urtearen hasieran, INNOBASQUE Berrikuntzaren Euskal Agentzia sortu zen. Abentura zirrargarri horren bazkide aktibo gara sortu zenetik. Uste dugu asmo handiko apustua egin dela berrikuntzaren alde; ez soilik berrikuntza teknologikoaren alde, baita erakundeak, hezkuntza, komunikazioa eta gizarte osoa berritzearen alde ere. Uste dugu horixe dela modurik onena krisialditik atera ahal izateko gizarte hazi, gai eta zuzen moduan. Bat egiten dugu WOKA Euskadi: berrikuntzatik etorkizunerantz¹¹, agiri parte-hartzailearekin, baita haren gomendioekin eta ekarpenekin ere. Berrikuntza onuragarri izan behar da balioetan eta bizi kalitatearen eskubidean oinarritutako ekonomi berri bateranzko ibilbidean.

Nahiz eta auzi horren inguruan polemika handia egon eta haren edukiak nahiz irismena eztabaidagai izan diren, uste dugu berri ona izan dela I+G eskumenak Euskadiko administrazioari transferitzea. Berandu gabe abian jartzea espero dugu.

11. 2006an, Bizkaiko Zubia Gizadiaren Ondare izendatu zuten, eta 2008ko uztailean, berriz, leize hauek guztiak izendatu zituzten: Santimamiñe (Kortezubi), Ekain (Deba eta Zestoa) eta Altxerri (Aia)¹². Zorioneko gara Euskadik bi izendapen sinboliko horiek jaso izanagatik, hain zuzen, denboran bata bestetik hain urrun diren geure ondarearen bi zantzu horiengatik. Gaur egun, proposamen berritzaileak lantzen ari gara, ondarearen ikuspegi integrala areagotuko dutenak, eta balio kulturalak nahiz paisaiaren balioak batuko dituztenak. Proposamen berri horien bidez, ondare ez-materialaren egitekoa sustatuko dugu, baita horrek ingurune naturalarekin nahiz kulturalarekin duen lotura ukaezina ere. Aipatu beharra dago Arabari arreta handia eskainiko zaiola.

12. Hizkuntzaren eta hizkuntza-aniztasunaren inguruan lanean jarraitu dugu. Horrela, hizkuntzari buruz gure herrialdean dauden jarrerak ikertu ditugu¹³. Aipatu beharra dago immigrazioaren eraginez hizkuntza-aniztasun handia dagoela gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan, eta aniztasun hori ikertu nahiz sustatu dugula¹⁴. Esan beharra dago immigrazioak erronka berriak sortu dizkigula kulturartekotasuna kudeatzeko orduan. Euskadiko gizarteak eta erakundeek egiazko elebitasunaren aldeko politika eraginkorra gauzatu dute. Aipatu politika finkatu beharra dago, eta, gainera, ekarpen berriak egin behar dira, hizkuntza-aniztasunean trebatzea eskuarki gauzatu dadin.

¹¹INNOBASQUE (2009). *WOKA Euskadi: berrikuntzatik etorkizunerantz*.
<http://www.innobasque.com/Modulos/DocumentosVisor.aspx?docId=315&js=1>

¹² UNESCO. World Heritage Committee (2008). *Decisions adopted at the 32nd session of the World Heritage Committee (Quebec City, 2008)* Decision: 32 COM 8B.39
<http://whc.unesco.org/document/100946>

¹³ AMORRORTU, E. ORTEGA, A., IDIAZABAL, I. BARREÑA, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Gobierno vasco.
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/jarrerak_2009.pdf

¹⁴ URANGA, B., AIERDI, X., IDIAZABAL, I., AMORRORTU, E., BARREÑA, A., ORTEGA, A. (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa*. Bilbao: Ikuspegi, Amarauna-UNESCO Etxea.
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/hizk_imm_i_cas.pdf

13. Klima-aldaketaren kontrako borroka tokian-tokian landu behar da. Horregatik, bere inpaktua murrizteko (paper-kontsumoak, argitalpenen banaketak eta bere ekintzen isurketak konpentsatzeko) UNESCO Etxeak ingurumen-politika garatzen du eguneroko jardunean, garapen iraunkorreko eta basoberritze proiektuen bitartez. Esaterako, azpimarra daiteke estatuko lehen liburu konpentsatua izan zela UNESCO Etxeak eta Catarata argitaletxeak kaleratu zuten *El poder de las ideas*¹⁵ izenburuko liburua.

Horrez gainera, UNESCO Etxeak Euskadiko beste erakunde batzuekin batera garapen-lankidetzako proiektuen bitartez euskal gizartearen karbono-aztarna konpentsatzeko estrategia berritzailea sustatu du. Programa hori implementazio-fasean da egun, eta, haren bidez, isurketak konpentsatzeaz gain, euskal kooperazioak klima-aldaketaren kontrako borrokan bide berriak zabalduko ditu, eta partehartzea indartuko du. Berotze globalaren ondorioak hirugarren herrialdeetan murriztuko dituzten proiektuak sustatu nahi dira, izan ere, herrialde horietan jazoko dira Klima Aldaketaren ondorio larrienak¹⁶.

14. Pozik gaude Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen Garapenerako Euskal Lankidetzari buruzko jarduera-planarekin¹⁷. Esan gabe doa, aipatu plana gauzatzeko, aurreko taldeek egindako lan ona hartu dela oinarri. Gure iritziz, etorkizunerako habe onak dira, besteak beste, honako hiru apustu hauek: nazioarteko erakundeekin harreman zuzena izatea, garapenaren aldeko jardunean giza eskubideen ikuspegia sartzeta eta ikerketa. UNESCO Etxea garrantzi handiko eragile izan da Euskadiko Administrazioak nazioarteko erakundeekin egin dituen itunetan; besteak beste, UNESCOrekin¹⁸, ONUSIDArekin¹⁹, Milurtekoko Garapen Helburuen Kanpainarekin²⁰, OHCHRrekin edo Giza Garapenerako Txostenarekin. Are gehiago, plazer handiz eutsiko diogu egiteko horri. Heldu den urtean, Elkarlanerako Euskal Agentzia eratuko da. Arrakasta handia izan dezala opa diogu. Espero dugu Elkarlanerako Euskal Agentziak Euskadiko elkarlanaren kalitatea hobetzen laguntzea eta aurreko gobernuak hartu zituen eta egungo gobernuak berretsi dituen helburu kuantitatiboak betetzen

¹⁵ JOLLY, R., EMMERIJ, L., WEISS, T. (2007). *El poder de las ideas. Claves para una historia intelectual de las Naciones Unidas*. Madrid: Los libros de la catarata, Bilbao: UNESCO Etxea

¹⁶ NAZIO BATUEN GARAPEN PROGRAMA (UNDP) (2007), *Giza garapenari buruzko txostena 2007-2008: klima-aldaketari aurre egiten: elkartasuna mundu zatitu honetan*.
<http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh2007-2008/>

¹⁷ EUSKO JAURLARITZA (2007). *Plan Estrategikoa eta Zuzentzailea. Garapenerako Lankidetzeta 2008-2011*.
<http://www.lankidetzeta.info/DefinitivoPlanDirectorEstrategico2008-2011.pdf>

¹⁸ Hitzarmen guztiak: *Anuarios sobre la acción exterior de Euskadi*.
<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net>

¹⁹ EUSKO JAURLARITZA (2007). *Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de convenios de colaboración con ONUSIDA para el desarrollo del programa conjunto de VIH y SIDA de Naciones Unidas en Ruanda*.
http://www1.euskadi.net/acuerdos/indice_c.apl?Fecha=11/12/2007

²⁰ EUSKO JAURLARITZA (2004). *Adhesión de Euskadi a la Declaración del Milenio y a sus Objetivos*.
<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net>

laguntzea. Finantza-krisialdiak eragina izango du elkarlanerako munduko kontusailetan. Hala ere, onartezina litzateke finantza-krisialdiak %0,7a ematea galaraztea, hainbatetan arriskuan egon baita, eta geroko utzia.

15. Bat egin dugu EcoEuskadi 2020 Iraunkortasunaren aldeko Gizarte Ituna edo Urdaibai Ituna delakoarekin²¹. Urdaibai Ituna Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen 2009ko ekainaren 5ean, Ingurumenaren Eguna zela eta. Bat egiten dugu, baita ere, itun horren apustuarekin, garapenerako eredua askatu nahi baitu garapen iraunkorra baliatuz. Aipatu aitorpena apurka-apurka edukiz eta jardueraz betetzen joatea nahi dugu. Horrez gain, jarduera eta eduki horiek diseinatzen, eztabaidatzen eta inplementatzen parte hartu nahi dugu.

16. Bat gatoz, baita ere, Urdaibai Biosfera Erreserba sustatzeko planekin, Erreserbako balioak zaindu eta bertan bizi direnen nahia zein parte-hartzea kontuan hartzen baitituzte. Biosfera Erreserben garapen-ereduarekiko gure konpromisoa irmoa da. Horregatik, Urdaibairen gaurkotasunean eta etorkizunean parte hartzen dugu bere Patronatuaren Plenoan UNESCO ordezkatzuz. UNESCO Etxeak Urdaibaik munduan lekua izan dezan, eta gainerako Biosfera Erreserbekin bere eduki propioekin harremanak izan ditzan. Horrela, Ingurumen Hezkuntza eta Garapen Iraunkorreko UNESCO Katedrak eta Erreserbak ikerketa zientifikorako eredu bat garatu dute Urdaibairen kudeaketara aplikatua. UNESCOk eredu hori paregabea eta eredugarritzat jo du, eta Munduko Biosfera Erreserben Sareak sustatzen du²².

17. Elkar Ulertze Memoranduma²³ izan zen Euskadiren eta UNESCOren arteko harremanen une berritzailerik gogoangarriena. Aprobetxatu nahi dugu UNESCOn garai berriak datozela, aipatu memoranduma indarberritzeko eta edukiz berritzeko.

ALDAKETAK ETA AUKERAK ESPAINIAN

18. Espainian, baita ere, gutxiengoan den gobernu berria eratu da. Horrek akordioak eta aliantzak ezartzera behartzen du gobernu berria. Bada aukera Estatuak errealitate plural eta kulturantzaren baietzapena egiteko eta parlamentuko balioak biziberritzeko.

²¹EUSKO JAURLARITZA (2009). *Urdaibaiko Adierazpena*.

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/noticia/inter_20090605_decla_urdai/es_int_decl/adjuntos/declaracion.pdf

²² *Cátedras UNESCO en relación con las Reservas de la Biosfera: la unión entre la ciencia y la gestión ambiental*.

http://www.unescoeh.org/dokumentuak/CatedraUPV_ReservaBiosfera_MaB.pdf

²³ UNESCO, EUSKO JAURLARITZA (2001). *Memorando de Entendimiento con la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura –UNESCO y el Gobierno Vasco-*.

http://www1.euskadi.net/acuerdos/indice3_c.apl?Fecha=24/07/2001

19. Nekazaritza Ministerioak Ingurumen Ministerioa hartu zuen. Hura ez zen berri ona izan. Antolakuntzan izan den aldaketa horrek zenbait ondorio praktiko ekarri ditu dagoeneko: aitzindaritzak behera egin du, baita ekimenak, asmoek eta ingurumenaren nahiz uraren gaineko politiketako gaitasunek ere. Eredu hau Euskal Herrian ere emateak larritasuna sortzen digu. 2009ko maiatzaren 12an Nazioaren Egoerari buruzko eztabaidan Gobernuko Presidenteak eman zuen hitzaldian agertu zituen asmoak onak dira. Ekonomia iraunkorraren aldeko apustua egiten du, ingurumenaren arloko I+G+Bren alde eta sozialki nahiz teknologikoki puntakoak diren sektoreen alde²⁴. Nolanahi ere, gure iritziz, horiek guztiak garatzeko, aitzindaritza sendoagoa behar da, ministerio zein lehendakariordetza maila hartuz.

20. Espainiak Kyotoko Protokoloa izenpetzean konpromisoa hartu zuen CO2 isurketen neurrizko hazkundea izateko baldintza onetan; baldintza onegiak, agian, herrialde garatua dela kontuan izanik: %15eko hazkundea 2020. urtera arte. Espainiako isurketak, nolanahi ere, ezin onartzeko %55ean handitzen ari dira. Gobernuaren lehentasunen artean egon beharko litzateke konpromisoan hartutakoa betetzea. Horrez gain, herrialde garatua den aldetik, erantzukizun handiagoak hartu beharko lituzke bere gain munduko helburuetan –2020. urterako, munduko isuriak %30 inguru murriztea–.

21. Espainiako Giza Eskubideen Plana²⁵ aurkeztu eta onartu da azkenean. Plan horrek biltzen ditu Nazio Batuetako batzordeen eta errelatoreen gomendioetako batzuk. Bada plana hobetzeko aukera inplementazio-garaian. Horretarako, beharrezkoa da eragile inplikatu guztiek parte hartzea. Plana hobetu daiteke, baita ere, hura lantzeko garatu den prozesu parte-hartzailea hobetuz, orain artean ez baita oso eraginkorra izan. Nazio Batuetako errelatoreek eta batzordeek giza eskubideen arloan egindako gomendio guztiak terrorismoaren kontrako borrokan osoki sartuak izan daitezela nahi dugu, arlo judizial eta penalean bereziki. Plana existitzea, publikoa izatea eta guztiok tartean sartzea berri ona da guretzat. Uste dugu positiboa dela planaren jarraipena egiteko sistema parte-hartzailea diseinatu izana, zeinean UNESCO Etxeak parte hartuko duen. Era berean, egoki iruditzen zaigu lehen lehendakariordeak plana koordinatzea.

Aldiz, bake-hezkuntzarako proiektuei zuzenduriko diru-partida ezabatzea ez zen erabaki egokia izan. Bake-lkerketarako Espainiako Elkarteak (AIPAZ) aurkezturiko kexarekin bat egiten dugu.

22. Krisialdiari aurre egiteko politiketan aukera egokiagoa litzateke gobernuak ekimen berritzaileak eta B+Gkoak, lanpostuak eta aberastasunaren sortzaile izateko enpresako ekimen txikiak sustatzeko neurriak hartu izan balitu. Era berean, ekimenetako eta kontrataziorako adminitrazio-prozesuak errazteko neurriak hartzea ere egokiagoa litzateke. Hori guztia, urte batean, noiz eta Ekonomia Garatzeko eta Kooperaziorako Erakundeak (OCDE) esan duenean Espainiak 12 postu galdu dituela ekintzetarako erraztasuneko sailkapenean.

²⁴ GORTE NAGUSIAK (2009). *Sesión plenaria núm. 76 celebrada el martes 12 de mayo de 2009*.
http://www.congreso.es/public_oficiales/L9/CONG/DS/PL/PL_081.PDF

²⁵ ESPAINIAKO GOBERNUA (2008). *Giza Eskubideen Plana*.
http://www2.ohchr.org/english/issues/plan_actions/docs/Spain_NHRAP.pdf

ALDAKETAK ETA AUKERAK EUROSPAN

23. Europar Batasunean hauteskundeak izan dira orain gutxi, eta parte-hartzea oso apala izan da.

Europa eraikitzeke prozesuan murgildurik gaude. Prozesu horrek eragina du guztion eguneroko bizitzan. Ez da egoki, beraz, herritarrek arrotz eta urruneko sentitzea erronka itzel hori.

24. Lisboako Ituna berresteko prozesua amaitu beharra dago. 2000. urteko Lisboako Ituna behin betikoz onartu beharra dago, eta Europak behar bezala baliatzen jakin behar du itun horrek eskaintzen dizkion aukerak, XXI. mendeko Europak gainditu behar dituen erronkei erantzun hobeak emateko. Guztiz garrantzitsua da Europak Lisboako Estrategia betetzea, berrikuntzaren, jakintzaren eta gizarte-kohesioaren munduko erreferente izan dadin. Proposatutako helburuen eta hauek betetzeko daramagun erritmoaren arteko aldea oso kezagarria iruditzen zaigu. Konpromesu politiko eta ekonomiko berri baten beharra dugula uste dugu.

25. Lisboako Itunaren baitan eratu da Oinarritzko Eskubideen Gutuna. Justizia Auzitegia arduratzen da eskubide horiek bermatzeaz²⁶. Bi alderdi horiek positibotzat hartzen ditugu, betiere, Europako Kontseiluak aurretiaz ezarri dituen estandarrak hobetzeko aplikatzen badira eta ez bazaizkio gainjartzen eskarmentu, gaitasun eta ibilbide egiaztatuak dituen Europako Auzitegiari. Batasunaren eta Kontseiluaren arteko koordinazioa inoiz baino beharrezkoagoa da orain Europako esparru demokratikoa, giza eskubidezkoa eta bakezkoa eraikitzeke.

26. Azkenik, Europak izan behar du erronka berriei aurre egiteko eredu dinamizatzailea munduan. Europak, bere eskarmentua, jakintza eta lidergoa oinarri harturik, hainbat alderdi sartu behar ditu munduko gobernatzaren agendan; besteak beste, ongizatearen estatua, eskubideetan oinarritutako segurtasuna, berrikuntza eta aurrerakuntzak munduko merkatu askean nahiz diru-batasunean. Ingurugiro kontuetan erreferentzia izanik (hiritarren inplikaziorako ekimen eta garapenerako lankidetzan), hau mantendu eta indartu behar da.

Europar Batasunera heldu den presidente espainiarra animatu nahi dugu eduki horietan aurrera egitera.

ALDAKETAK ETA AUKERAK UNESCON

27. Aldaketa-garaia da UNESCOren ere. UNESCOren hurrengo Biltzar Nagusian, zuzendari nagusi berria aukeratuko da. Orain arte, Koichiro Matsura japoniarra aritu da kargu horretan, bi agintaldiz. Komenigarria da prozesu garrantzitsu hori indar handiagoz sustatzea, ikusirik egungo erronkak nahiz aukerak zein diren eta UNESCOk horietan guztietan protagonismoa izan behar duela.

²⁶ EUROPAR BATASUNA (2007). *Tratado de Lisboa por el que se modifican el Tratado de la Unión Europea y el Tratado constitutivo de la Comunidad Europea, firmado en Lisboa el 13 de diciembre de 2007.*
http://europa.eu/lisbon_treaty/index_es.htm

Zuzendari Nagusi berriaren hauta-prozesuan eztabaida publikoak sortu dira hautatuak izateko aukera dutenen arteko bateren baten egokitasunaren inguruan. Gardentasn goreneko prozesua beharrezkoa dela uste dugu. UNESCOko Zuzendari Nagusiaren irudiak tolerantzia, bake-kultura eta kulturarteko bizikidetzaren erreferente globala izan behar du, eta horrenbestez, haren hautaketa denoi dagokigun zeregina da.

UNESCOri elkarturiko gizarte zibila garen aldetik, etorkizuneko selekzio-prozesuetan pate-hartze handiagoa eskatzen dugu, esate baterako, hautagaiek UNESCOren gizarte zibilak presentzia izango duen batzorde baten aurrean agerraldia eginez.

28. Estreinakoz, Biltzar Nagusiak berezko esparrua izango zuen, berezia eta duina, gizarte zibilak parte hartzeko; baina, tamalez, Partners Village bertan behera geratu da. Nolanahi ere, Partners Forum-ek lehen baino eduki eta ordezkaritza handiagoa du orain.

29. UNESCO Etxea UNESCOrekin elkarlanean aritu da UNESCO Bilbao Saria sortzeko. Haren bidez, Giza Eskubideen Kultura sustatu nahi da. Stephane Hessel XX. mendeko figura handia, Deklarazio Unibertsala sortu zutenetik bizirik den bakarra, izan da UNESCO Bilbao Sariaren lehen edizioko sariduna; ondo merezita, gainera. UNESCOrekin elkarlanean aritu gara, buru-belarri, programa hauetan: Baliabide Hidrikoak, Biosfera Erreserbak, Giza Eskubideak, Kultura eta Hizkuntza Aniztasuna, Hezkuntza, Ondarea, Ingurumen Hezkuntza, informazioa, dokumentazioa eta argitalpenak.

30. Aldaketa eta aukera askoko garaian gaudela uste dugu. Ondorioz, garai berri hauen zutabe diren balioak berraztertu beharko genituzke. Uste dugu UNESCO esparru egokia dela XXI. mendeko balioen gaineko mundu-mailako gogoetari ekiteko. Horretarako, UNESCOk bere balioak eta sortzetiko asmoak berreskuratu beharko lituzke. Hasiera-hasieran, UNESCOk hauxe uste zuen: gerrak pertsonen buruan sortzen direnez, bakea ere pertsonen buruan sortu beharko litzateke, Bakearen Kultura sustatuz. Ondorio horiei begira, agiri erabilgarritzat jotzen dugu "Mundua berreraikitzea krisialdiaren ondotik" izeneko gogoeta, Novia Salcedo Fundazioak egina.

31. UNESCO Etxeak Biltzar Nagusiaren baitan dinamizatuko du bere esku-hartzea Ura Giza Eskubide bihurtzea sustatzeko eta defendatzeko²⁷. Horrez gain, Bakerako Giza Eskubideari²⁸ eta Bakearen Kulturari buruzko lanak berreskuratzen lagunduko du. Era berean, nazioartean aintzatetsi diren gainerako zentro guztiekin batera, UNESCO gizarte zibilaren nazioarteko elkargo moduan aurkeztuko da.

²⁷ MANCISIDOR, M., URIBE, N. (2008). *El Derecho Humano al agua. Situación y retos de futuro*. Madrid: Icaria

²⁸ *Bakerako giza eskubideari buruzko Luarcako adierazpena* (2006)
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_Luarca_eusk.pdf

32. Fase berri batean sartuko da UNESCO, zuzendari nagusi berria izango du, eta honek UNESCOren Konstituzioa praktikara eramateko aukera emango du, bereziki giza duintasunean oinarritutako printzipio demokratikoak. Honez gain, helburu hauek gauzatzen ahalegindu beharko du.

- Erakundea eguneratzea, NBEkoen artetik UNESCO erakunde eredugarri izan dadin bere esparruko aginduak eraginkorrak izateagatik.
- Gizarte zibileko UNESCO erakundeetan barne-demokratizazioa eta parte-hartzea handitzea.
- Bere programa eta jarduera guztietan giza eskubideen ikuspegia indartzea, UNESCOren 2003ko Giza Eskubideen Estrategiarekin bat etorri²⁹.
- Bi urteko bere lan-planearan Uraren Giza Eskubidearen, Bakerako Giza Eskubidearen eta Bake Kulturaren Giza Eskubidearen edukiak sartzea.
- UNESCO izatea Milurtekoko Garapen Helburuak aurreratzen aitzindari.
- Kultura-aniztasun eta hizkuntza-aniztasun kontuetan UNESCO munduan lehena izatea eta bat egitea Eskubide Kulturelek aurrera egiteko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordea nahiz Giza Eskubideen Kontseilua gauzatzen ari diren lanarekin.
- Aurrerakuntza zientifikoaren eta aurrerakuntza horien aplikazioen onurez gozatzeko eskubidea lantzen jarraitzea, eta egiteko horretan berrikuntzak nahiz sormenak ekartzen dituzten aukera handiez baliatzea.
- Hezkuntza Guztionatzat Ekimena errealitate izan dadin bere lidertza indartzea. Hezkuntzako diskriminazio guztiak desagertzea, heziketa-sistema unibertsalak eta kalitatezkoak sustatuz, goi-mailako hezkuntza eta lanbide-hezkuntza bizitza osoan zehar ikasteko aukera bermatuz. Giza Eskubideen ezagutza eta bizipena hezkuntzaren elementu lehenetsia izan dadin ekimenak indartzea.
- Zientzia Naturalen sektoreak garaturiko lanari garrantzia berezia ematea Gizakia eta Biosfera programaren bitartez, eta baita Ura programa (WWAP eta IHP), eduki propioekin; adibidez, Biosfera erresebetako UNESCO Katedren ekimenak eta beste hainbat babestuz, esate baterako, Paisaua eta Lurraldea, Kultura Aniztasuna edota Geodibertsitatearenak, besteak beste.
- XXI. mendeko balio unibertsalei buruzko gogoetari ekitea, munduko erronkei aurre egiteko.

ALDAKETAK ETA AUKERAK NBE BARRUAN ETA BESTE NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN

33. Moralaren, balioen, ekonomiaren eta gizartearen krisialdi latza bizi dugu. Federico Mayor Zaragozaaren hitzetan, “krisialdi guztiak aukerak dira, eta orain bihotzez uste dut, baita itxaropen osoz uste ere, krisialdi hau ez dela aldaketa-garaia izango, baizik eta garai-aldaketa”³⁰.

²⁹ UNESCO (2003). *Estrategia UNESCO en materia de Derechos Humanos*.
<http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001457/145734s.pdf>

³⁰ MAYOR ZARAGOZA, F. (2009). Hitzaldia: **La Paz en un mundo globalizado**. V Edición del Observatorio de la Globalización de la Universidad de Jaén. 9/06/2009.

Egiazki, krisialdi honek argi utzi du nazioarteko komunitateak izan badituela nahikoa bitarteko larrialdi-egoerei aurre egiteko. Nazio Batuen Erakundea aitzindari izan da zenbait kontutan krisialdiari aurre egiten. Horrela, Nazio Batuek duela zenbait urte izan zituzten eztabaidak bere egin dituzte, gaur egun, hainbat estatuk, gobernuak eta gobernu arteko zenbait erakundek.

34. Interes handiz jaso dugu A/RES/63/303 ebazpena³¹. Ebazpen hori da, hain zuzen, munduko finantza-krisialdiari eta krisialdi ekonomikoari nahiz krisialdiak garapenean duen eraginari buruzko Biltzarraren azken agiria.

Krisialdiak aukera ematen du gogora ekartzeko ezin direla banatu, batetik, finantzen nahiz merkatuen globalizazioa eta, bestetik, demokraziaren, giza eskubideen eta parte-hartzearen globalizazioa. Krisialdiak gogora ekartzen digu, baita ere, munduko gobernantza demokratiko eta parte-hartzailearen bidez soilik aurre egin dakiekeela munduko erronkei. Krisialdiak behartu gaitu kapitalismoaren gobernu berritzera, onberagoa eta iraunkorragoa izan dadin; ekonomia eta merkataritza ez daitezen xede izan, ez daitezen izan aberaste selektibo eta desberdina bideratzeko tresna, baizik eta pertsona ororen giza garapenerako tresna izan daitezen, giza eskubideak mundu osoan babes daitezen (giza eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barne), izan daitezen tresna bat garapen iraunkorra egia bihurtzeko.

Krisialditik ez gara sekula aterako ahazten badugu 1020 milioi pertsona goseak direla³², ahazten badugu 884 milioi pertsonak ez dutela ur edangarririk³³ eta 2.500 milioi pertsonak ez dutela saneamenduko oinarrizko zerbitzurik³⁴. Ez gara krisialditik behar den moduan aterako MGHak ahanzten baditugu. Helburu horiek ezin dute krisialdiaren faktura ordaindu; aitzitik, krisialditik atera izanaren neurgailu sozialak, ekonomikoak eta etikoak izango dira. Diru erakundeen krisiari aurre egiteko erabili diren baliabideen pareko ekimenak egon behar behar dira Milurteko Garapen Helburuak betetzeko. Bestela, iruzur berri baten aurrean egongo ginateke.

35. Bildu ginen azkeneko aldian, desarmatzeak ez zuen berealdiko garrantzirik nazioarteko agendan, ezta, bereziki, suntsipen handiko armek ere. UNESCO Etxeak aurrea hartu zuen, eta Hans Blix buru duen Suntsipen Handiko Armen Batzordea babestu zuen. Egun, egoera berrian gaude, eta badirudi armen –batez ere nuklearren– gaineko kontrolak hobera egin dezakeela. Desarmatzearen eta

³¹ NAZIO BATUAK. Batzar Nagusia (2009). *Documento final de la Conferencia sobre la crisis financiera y económica mundial y sus efectos en el desarrollo*. (A/RES/63/303)
<http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/63/303>

³²FAO (2009). *Munduko elikaduraren gaineko ziurtasunik ezari buruzko txostena 2009*. (2009ko urrian argitaratua)
http://www.fao.org/fileadmin/user_upload/newsroom/docs/Press%20release%20june-es.pdf
<http://www.fao.org/news/story/es/item/20568/icode/>

³³ NAZIO BATUAK (2009). *Informe sobre los Objetivos de Desarrollo del Milenio 2009*.
http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/pdf/MDG_Report_2009_SP_r3.pdf

³⁴ Ibidem

Garapenaren Nazioarteko Biltzarraren garapen-lanak babesten ditugu. Horrez gain, gogora ekarri ditugu Blix Txostenaren 60 gomendioak³⁵.

36. Baliteke orain garai egokia izatea Nazio Batuen sistemaren erreformari buruzko zenbait ideia berreskuratzeko, aipatu erreforma ez baitzen gauzatu Annan-en agintaldiaren amaieran (ONE UN). Baliteke garai egokia izatea, baita ere, Breton Woods-eko erakundeak (NDF, MB eta MMA) NBERen koordinaziopean sartzeko. Horrela, aipatu erakundeen diskurtsoa eta praktika bateragarriak izango dira nazioarteko gainerako erakundeen zuzentarauekin. Baliteke, baita ere, garai egokia izatea gogora ekartzeko aurrerantzean Segurtasun Kontseilua ezin dela izan II. Mundu Gerra irabazi zutenen klub murriztailea. India edota Brasil herrialdeek nahiz hainbat eskualdek beren lekua izan dezakete Kontseilu horretan; nazioartean duten garrantzia islatzen duen lekua, alegia. Beren lekua izan beharko lukete, baita ere, NDF eta MB erakunde berrituetan.

37. Heldu den abenduan, Copenhagen egingo da Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen biltzarraren goi-bilera³⁶. Gure azken bileratik nabarmen egin dugu aurrera. 2007. urtean, nazioarteko eta tokiko zenbait agintarik zalantzan jartzen zuten aldaketa klimatikoa existitzen zenik edo aldaketa klimatikoa garrantzi handiko auzia zenik. Gaur egun, aldiz, inork ez du zalantzan jartzen aldaketa klimatikoaren garrantzia edo existentzia. Eztabaida hori, gaur egun, aurrerabide egokian da, aldaketa klimatikoari aurre egiteko moduan. Ziur gara nazioarteko komunitatea gai izango dela sendotasunez erreakzionatzeko. Gogora ekarri nahi dugu aldaketa klimatikoaren kontrako borroka eztabaidazina dela eta ezin banandu daitekeela iraunkortasunaren eta pertsonen garapenaren aldeko borrokatik. Txanpon beraren bi aldeak dira. Alferrikakoa da eztabaidatzea zerk duen garrantzi handiagoa, aldaketa klimatikoaren aurkako borroka ala gosearen aurkako borroka. Eztabaida eskolagabea eta asmo gaiztokoa da hori. Biak ala biak lehiatzeke dugun gudaren bi aho dira: pertsona guztientzako giza garapen iraunkorraren aldeko borroka.

38. Daniel Innerarity-ren hitzetan, “eztabaida hori bideratzeko, dagoeneko ez dira baliozkoak demokrazia liberalen etorkizuna diseinatu zuten erakunde klasikoak: ez dira baliozkoak, ez zientzia determinista, ezta etorkizuna beste baliabide bat bailitzan ikusten duen ekonomia. Ez da baliozkoa, ezta ere, garaikideen arteko kontratuaren emaitzatzat justizia hartzen duen eta ondorengoen eskubideak aurreratzeko tresnarik ez duen zuzenbidea (...).Etorkizuna egungo gizartearen arazo bilakatu da. Baliteke etorkizuna gure arazorik handiena izatea, baina, era berean, politika zuzentzeko irtenbidea izan daiteke”³⁷. Etorkizun hori errealitate historiko modura eraiki genuen, eta aipatu berri dugun deklarazioak erakusten du bidezko eraikuntza iraunkor horretan parte hartzeko gure hautua.

³⁵ COMISIÓN DE ARMAS DE DESTRUCCIÓN MASIVA (WMDC) (2007). *Las Armas del Terror. Librando al mundo de las Armas químicas, biológicas y nucleares*. Bilbao: UNESCO Etxea, Bartzelona: Asociación de las Naciones Unidas para España (ANUE).
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/armas_del_terror.pdf

³⁶ *Conferencia de las Naciones Unidas sobre Cambio Climático*. Copenhague, 2009ko Abenduak 7-18.
<http://es.cop15.dk/>

³⁷ INNERARITY, D. (2009). *Recuperar el porvenir*. (El País 2009/05/17)

39. Ondorioz, esan genezake munduko erronkak, arazoak eta aukerak munduko gobernantzaren bidez lantzearen alde gaudela. Gobernatzeko modu demokratikoagoa eta parte-hartzaileagoa. Ondoko agiri hauetan jasotako balioak eta printzipioak oinarri dituen gobernantza: Nazio Batuen Gutuna, UNESCOren konstituzioa, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta Milurtekoko Deklarazioa. Aipatu dokumentu horiek guztiak aldiari aldiro berritzen dira, eta gizarte osoa batu behar dute. Gobernatzeko modu bat zeinean herriak, herritarrak eta gizarte zibilaren erakundeak, Federico Mayor Zaragozaren hitzetan, zenbatuak izateaz gain, aintzat hartuko diren.

UNESCO ETXEKO OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKU BATZORDEA

Federico Mayor Zaragoza

Mikel Mancisor

Carlos Fernández-Jáuregui

Ruper Ormaza

Txomin Bereziartua

Daniel Innerarity

Juana Carro

José Antonio Ardanza

Fèlix Martí

Manuel Lezertúa